


Lezoko zine agenda

URTARRILA Enero

2004




Gezala

AUDITORIUMA

800 zine ma




Lezoko Unibertsitateko
Udala



TAXI DRIVER

Osagai interesgarri ugari dituen filmea da Taxi Driver. Lehenik eta behin, klasiko bihurtu den filmea da. Bigarrenik, Scorsese zuzendari bezala ezagutarazten du. 14 urte zitueneko Jodie Foster gazte-gaztea. "Luz de Luna"n ezagutu genuen Cybill Shepherd detektibea, Veneziako 1976ko urrezko maskorra ... Zer gehiago behar duzu?

1976, EEBB
 Martin Scorsese
 Rober de Niro, Jodie Foster, Harvey Keitel, Cybill Shepherd.
 110 min.



MUERTE ENTRE LAS FLORES

1990ean Donostiako zinemaldian zilarrezko maskorra eman zioten zuzendari hoberenari eta orduan ezagutu genituen Coen anaiek pelikula asko eta onak egin dituzte gaur arte. "Barton Fink", "Fargo" edo "The Big Lewoski"ren egileak beti saiatu izan dira, estatubatuarrak izan arren, zinema independentearen ildoari jarraitzen.


1989, EEBB
 Coen anaiek
 Gabriel Byrne, John Turturro, Marcia Gay Harden, Jon Polito.
 110 min.



AMORES PERROS

Mexiko guretzako askotan tekila, mariatxiak eta txapel handien herrialdea dela iruditzen zaigu. Betiko topikoak! Film honetan guzti hori ahaztu! Bai, Mexikon ere, badakite pelikula egiten. Elkarrekin lotzen diren hiru historia, zein baino zein gordinagoa. Norbaitek idatzi zuen moduan "Mexiko D.Eri buruzko collage hiritar bikaina". Zerikusirik ez Cantiflasekin!


2000, Mexiko
 A.González Iñárritu
 Gael G. Bernal, E.Echeverría, Jorge Salinas, Goya Toledo, Álvaro Guerrero.
 153n.



SEXO, MENTIRAS Y CINTAS DE VIDEO

Gaur egun Hollywoodeko zuzendari handietakoa da Soderbergh (Erin Brockovich, Traffic, Ocean's Eleven, Soalris). Halere, Hollywoordera iritsi baino lehen askorentzat interesgarriagoa izan den etapa sortzaileago bat izan zuen. Pelikula hau berak zuzendutako lehenengo filma da eta zerikusirik ez du gaur egun egiten duenarekin.


1989, EEBB
 Steven Soderbergh
 Andie MacDowell, James Spader, Lausa San Giacomo, Peter Gallagher.
 100 min.



CRASH

Amodioa eta sexu mailan dena bazenekiela uste bazenuen filma hau ikusi arte ez esan azken hitzik. Auto istripu baten ondoren protagonista erakarria sentitzen da beste gidariarekiko. Istripuak, arriskua, erakarpena, sexua... Sinesgaitza? Cronembergen filmografia ezagutzen duenak badaki ez gela gezurretan ari.

1996, Kanada, Frantzia, E.B.
 David Cronenberg.
 James Spader, Holly Hunter, Elias Koteas, Rosanna Arquette.
 100 min.



LEAVING LAS VEGAS

F.F.Coppolaren iloba den Nicholas Cagék egin duen lanik borobilena zalantzarik gabe. Ben Sandersonek Las Vegasera joatea erabakitzen du bere buruarekin bat egiteko. Plana lau astetan alkoheletan itotzea. Halere, emakume bat azaltzen da, amodioa eta sentimenduak sortzen dira eta itxaropena piztu. Ez zaizu tabernara joateko gogorik geratuko.

1995, EEBB, Frantzia
 Mike Figgis
 Nicholas Cage, Elisabeth Shue, Julian Sands, Richard Lewis.
 112 min.



ROJO

Donostiako Zinemaldiak sail oso bat eskaini zion Krzysztof Kieslowski-ri, oraindik bere pelikula ezagunenak - La double vie de Véronique, Rouge, Byali edo Bleu - filmatu ez zituenear. Pelikula hau trilogia baten hirugarren filma da eta zuzendari honen azkenengoa. Kieslowski oraindik ezagutzen ez duzun zuzendaria bada ez aukera hau galdu!


1994, Frantzia, Polonia, Suiza.
 Krzysztof Kieslowski
 Jean-Louis Trintignant, Irène Jacob, F.Feder.
 99 min.



LOS AMANTES DEL CÍRCULO POLAR

"La pelota vasca. La piel contra la piedra" dokumentala Medemen lan entzutetsuena bilakatu bada ere, aurretik zuen filmografiari erreparaturaz gero, gaur egun erreferentziak zuzendarietako bat dela aitortu behar dugu. Zuzendari honek zine munduan egindako ibilbide artistikoak oso akats gutxi ditu.


1998, E.H.
 Julio Medem.
 Nawja Nimri, Fele Martínez, Nancho Novo, Maru Valdivielso.
 112 min.



SEVEN

Serial Killerrak jada genero dira. Hiltzaile batek jolaserako gogoia du. Zazpi bekatu nagusien arabera hilketak egiten hasten da. Poliziarentzat ez da momentu egokiena M.Freemane gorpuzten duen pertsonaia erretiratzear baitago. Beno, honaino dena tipiko samarra, baina pistak ematen hasiz gero hori bai bekatu litzatekeela!

1995, EEBB
 David Fincher.
 Morgan Freeman, Brad Pitt, Kevin Spacey, Gwyneth Paltrow.
 125 min.



SIN PERDÓN

Clint Eastwoodek zuzendari moduan egindako bederatzigarren pelikula. Kasu honetan protagonista ere bada eta lana ezinhobe egiten du antiheroi paper ahaztezin batean. Bakeroen pelikulek jeneroa osatu dute, zalantzarik gabe hau da jenero horretako azken pelikula interesgarria. Oscar sariak, kritikoen adostasuna, publikoaren txaloak...

1992, EEBB
 Clint Eastwood
 Clint Eastwood, Gene Hackman, Morgan Freeman, Richard Harris.
 131 min.



SHIN CHAN BOLA GALDUAREN BILA

"Tronpa, tronpa..." Ez, ez! ez dira mozkor baten oihiak! Japoniako haur ezagunena da. Shin Chanen afizioak eta ametsak bitxiak eta oso bereziak dira, eta pentsa daiteken moduan, film honetan ere, Shinossukek biziko dituen abenturak pentsaezinak dira... "Tronpa, tronpa..."


2003, Japonia
 Keichi Haraq.
 Marrazki bizidunak.
 101 min.



LAGUNDU ARRAINA NAIZ!

Fly, Stella eta Charlie edabe bat edan ondoren arrain bilakatzen dira. Bi egunetan antidotoa lortu behar dute betirako arrain geratu nahi ez badute. Erritmo biziko eta abenturaz jositako pelikula.

2000, Alem., Irlanda, Danim.
 S.Fjeldmark eta M.Hegner.
 Marrazki bizidunak.
 83 min.



KIRIKU ETA SORGINA

Afrikan herrixka bat izututa bizi da Karaba sorgin maltzur eta gaiztoaren eraginez. Bada, halere, herri horretan Kiriku izeneko haur bat. Kirikuk sorginari beldurrik ez dion bakarra da eta oihanetako animalien laguntzaz sorginaren aurka egiten saiatuko da. Zerbait lortuko du Kirikuk?

1998, Frantzia, Belgika, Luxenburg
 Michel Ocelot
 Marrazki bizidunak.
 74 min.



AHMED, ALHAMBRAKO PRINTZEA

Juanba Berasategik egindako marrazki bizidunek beti izan dute arrakasta eta haurren oso gustuko historiak kontatu izan ohi ditu. Oraingo honetan Ahmeden abenturak dakartzkigu. Alhambran bizi den printze gaztetxo honek ikasi besterik ez du egin jaio zenetik. Uso txuri batek amodioari buruz hitz egingo dio eta Nafarroarantz abiatuko da.

1998, E.H.
 J.B.Berasategi
 Marrazki bizidunak.
 70 min.



KALABAZA TRIPONTZIA

Berrito ere Juanba Berasategiren pelikula, haurrek hain gustukoa duten estilo, estetika eta historiek. Oraingoan ere, marrazki bizidun koloret-su eta dinamikoak. Euskal Herriko pertsonai mitologikoek gure herriko hainbat ipuin kontatuko dizkigute.

1985, E.H.
 J.B.Berasategi
 Marrazki bizidunak.
 90 min.

Eguna /día

TAXI DRIVER
LEAVING LAS VEGAS
SHIN CHAN BOLA GALDUAREN BILA
MUERTE ENTRE LAS FLORES
ROJO
LAGUNDU ARRAINA NAIZ!

Eguna /día

AMORES PERROS
LOS AMANTES DEL CÍRCULO POLAR
KIRIKU ETA SORGINA
SEXO, MENTIRAS Y CINTAS DE VIDEO
SEVEN
AHMED, ALHAMBRAKO PRINTZEA

Eguna /día

CRASH
SIN PERDÓN

Eguna /día

KALABAZA TRIPONTZIA

URTARRILA - ENERO

OSTIRALA 2	LARUNBATA 3	IGANDEA 4	OSTEGUNA 8	LARUNBATA 10	IGANDEA 11
22:00					
	22:00				
		16:30			
			20:00		
				22:00	
					16:30

OSTEGUNA 15	LARUNBATA 17	IGANDEA 18	OSTEGUNA 22	LARUNBATA 24	IGANDEA 25
20:00					
	22:00				
		16:30			
			20:00		
				22:00	
					16:30

OSTEGUNA 29	LARUNBATA 31				
20:00					
	20:00				

OTSAILA - FEBRERO

IGANDEA 1					
20:00					

ZINE EGITARAUA

Lezoko Udalak *Zinema 800* izenarekin bataiatu duen egitasmoa jarriko du martxan. Egitasmoaren funtsa zine eskaintza egitea da ahalik eta gustu ezberdinenak asetzeko asmoarekin.

Zinema 800 egitasmoa hiru ardatz nagusitan oinarrituko da:

► Zine historiaren izarrak

Programazio eguna, osteguna. Ordua, 20.00. Prezioa, 2,00 €

Zineari "zerbait gehiago" eskatzen dionarentzat bereziki prestatua. Zuzendari interesgarrien lan aipagarriak, berrikuntza estetikoak, zine mugimendu ezberdinen uneak, nazioarteko festibaletan sarituak, Donostiako zine karteleratik pasa ez direnak... Hau da, zinearen historian berezko izena eskuratu duten filmak ostegunero Lezoko Gezala Auditoriumean.

► Izarren zinea

Programazio eguna, larunbata. Ordua, 22.00. Prezioa, 2,00 €

Gutxiengo kalitatea abiapuntua izanik, maila ezberdinetako filmak izango dira ikusgai. Aukeraketan baloratuko den aldagai nagusia filmak izan duten arrakasta komertziala izango da. Erraz ulertzeko *komertziala* dei genezakeen saila litzateke honako hau. Orokorrean, *Hollywood-eko film entzutetsuak* programatuko dira.

► Zine-gaztea

Programazio eguna, igandea. Ordua, 16.30. Prezioa, 1,00 €

Haur eta gazteei zuzendutako egitasmoa da. Oro har, euskaraz izango da, eta hemen ere kalitatea eta, bereziki, edukia zaintzeaz gain, film ezagunak izango dira ikusgai. Haur eta gazteentzat arratsalde-pasa atsegina nahi dugu, behingoz, Lezotik atera gabe. Hala ere, dokumentalek edota bestelako filmek ere izango dute tarte. Estreinatutako berri diren filmak gutxienez urtebetera.

etorri eta
dastatu

te lo ponemos
muy fácil

